

KULTURA SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, prozedura irekiaz, «Gipuzkoan ustez arkeologi aztarnak dauden eremuen dokumentazioa, zedarriztapena eta informatizazioa» egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko dena. (Espediente: A-15/1997).

11122

Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

JUSTIZI, EKONOMI,
LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

IRAGARPENA, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria, «Euskadiko Pirenaika Federakuntza / Federación de Criadores de Ganado Pirenaico de Euskadi (EPIFE)» elkartearen eratzeko agiriak gorde direla jakinarazten duena.

11124

IRAGARPENA, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria, «Asociación Empresarial de Profesionales Inmobiliarios del País Vasco (AEPI del País Vasco)»-ren estatutuak aldatzeko agiriak gorde direla jakinarazten duena.

11124

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-3416

6/1997 LEGEA, ekainaren 6koa, estatutuak Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeari egokitzeko beste epe bat jartzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

6/1997 LEGEA, EKAINAREN 6KOA, ESTATUTUAK
EUSKADIKO KOOPERATIBEI BURUZKO
EKAINAREN 24KO 4/1993 LEGEARI EGOKITZEKO
BESTE EPE BAT JARTZEKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

3/1995 Legeak, ekainaren 23koak, luzatu egin zuen Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legeak, ekainaren 24koak, bere aldibaterako xedapenetako hiruga-

DEPARTAMENTO DE CULTURA

CONCURSO PÚBLICO por procedimiento abierto para la contratación de una asistencia técnica que tenga por objeto la «Documentación, delimitación e informatización de las Zonas de Presunción Arqueológicas de Gipuzkoa». (Expte. A-15/1997).

11122

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMÍA, TRABAJO
Y SEGURIDAD SOCIAL

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la Constitución de la «Euskadiko Pirenaika Federakuntza / Federación de Criadores de Ganado Pirenaico de Euskadi (EPIFE)».

11124

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la Modificación de Estatutos de la «Asociación Empresarial de Profesionales Inmobiliarios Del País Vasco (AEPI del País Vasco)».

11124

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-3416

LEY 6/1997, de 6 de junio, de habilitación de un nuevo plazo para la adaptación estatutaria a la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 6/1997, DE 6 DE JUNIO, DE HABILITACIÓN DE
UN NUEVO PLAZO PARA LA ADAPTACIÓN
ESTATUTARIA A LA LEY 4/1993, DE 24 DE JUNIO,
DE COOPERATIVAS DE EUSKADI.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A pesar de la ampliación del plazo previsto por la disposición transitoria tercera de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, por la Ley

rreanean aurreikusten zuen epea; hala eta guztiz ere, egiaztatu ahal izan da ohiko ekonomi eta enpresa ihar-duera duten kooperatiben kopuru handi samar batek ez duela bete aldibaterako xedapen hartan araututako eginbeharra, hau da, ez diola eskatu Kooperatiben Erroldari beren estatutuen egokitzapena, indarrean dagoen legearekikoa, erroldan sartzea, nahiz eta zenbait kasutan 1996ko abuztuaren 31 baino lehen hartu zuten egokitzapenerako erabakia, bai eta jakitera eman ere.

Beste alde batetik, Kooperatiben Erroldak, egoera faktiko horren aurrean eta legeak dioena automatikoki betearazteak dakartzan ondorio garrantzitsuak aztertu ondoren, kooperatiben idazpenak berehala baliogabetzeko eginbeharra atzeratzea erabaki du; hori dela eta, oraindik ez zaio ekin kooperatiba horien errolda-idazpenak baliogabetzeari.

Gainera, aurretik aipatutako aldibaterako xedapenaren 2. zenbakia hitzez hitz harturik, gutxienez zalan-tzagarria gertatzen da epez kanpo aurkeztutako titulua erroldan sartzearen aldeko arau-hermeneutika oro; horregatik, kontuan harturik eragin juridiko oso garrantzitsuak dituela merkataritza-trafikoaren segurtasunari begira, komeni da beste epe bat, azkena eta behin betikoa, «ope legis» jartzea, kooperatiba horiek egoera legeza dezaten.

Azaldutako guztiagatik, eta kontuan harturik Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak egindako eskakizunak, beharrezkotzat jotzen da arau hau onestea.

ATAL BAKARRA

Lau hilabeteko beste epe bat ezarri da, lege hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasita, elkarteren estatutuen egokitzapena, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearekikoa, jasotzen duen eskritura Euskadiko Kooperatiben Erroldaren aurrean aurkezteko.

Kooperatiben Erroldak ofizio bidez berehala baliogabetuko ditu bere aurrean eta ezarritako epearen barruan aipatu eskritura aurkeztu ez duten kooperatiben errolda-idazpenak; kasu horretan, bere hartan iraungo du indarrean dagoen Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeko aldibaterako hirugarren xedapenaren 2. zenbakian aipatzen den erantzukizunak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Atal bakarrak epeari buruz araututakoa betetzen dute kooperatibek, baldin egokitzapen-eskritura 1996ko abuztuaren 31z geroztik aurkeztu badute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Eusko Jaurlaritzak lege hau aplikatu eta garatzeko arauak eman ditzake, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren proposamenez.

3/1995, de 23 de junio, se constata la existencia de un número relativamente importante de cooperativas que con actividad económico-empresarial ordinaria han incumplido la obligación regulada por aquella disposición transitoria de solicitar del Registro de Cooperativas la inscripción de la adaptación estatutaria a la ley en vigor, y ello no obstante, en algunos supuestos, de haber acordado la adaptación e incluso elevado el acuerdo a público con anterioridad al 31 de agosto de 1996.

Por otra parte, tal situación fáctica ha aconsejado al propio Registro de Cooperativas, una vez ponderadas las importantes consecuencias que se causan de su ejecución automática, a demorar la obligación de cancelación inmediata establecida por la ley, por lo que a la fecha no se ha realizado la cancelación de los asientos registrales de dichas cooperativas.

Además, toda hermenéutica normativa favorable a la inscripción del título presentado extemporáneamente resulta cuando menos dudosa frente a la literalidad del número 2 de la disposición transitoria reiterada, por lo que conviene, a los trascendentales efectos jurídicos de la seguridad del tráfico mercantil, habilitar «ope legis» un nuevo plazo, último y definitivo, que permita regularizar su situación a tales cooperativas.

Por todo lo expuesto, y teniendo en cuenta las demandas realizadas por el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi y la Confederación de Cooperativas de Euskadi, se estima necesaria la aprobación de la presente norma.

ARTÍCULO ÚNICO

Se habilita un nuevo plazo de cuatro meses, computados a partir de la entrada en vigor de la presente ley, para la presentación ante el Registro de Cooperativas de Euskadi de la escritura que contenga la adaptación de los Estatutos Sociales a la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

El Registro de Cooperativas cancelará inmediatamente de oficio los asientos registrales de las cooperativas que no presentaren ante el mismo y en el mencionado plazo la escritura citada, subsistiendo en dicho caso la responsabilidad a que se refiere la disposición transitoria tercera, 2 de la vigente ley de Cooperativas de Euskadi.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Cumplen con el requisito del plazo regulado en el artículo único las cooperativas que hubieren presentado la escritura de adaptación con posterioridad al 31 de agosto de 1996.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

El Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, podrá dictar normas para la aplicación y desarrollo de la presente ley.

Bigarrena

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean lege hau.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko ekainaren hemeretzian.

Lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**INDUSTRI, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA****Zk-3417**

141/1997 DEKRETUA, ekainaren 17ekoa, enpresa industrial txiki eta ertainen (ETE) finantza-egitura egokitze laguntza-egitaraua arautzeko dena.

Ekonomia egonkorra denean eta hazkundera iraunkorra denean, finantza-egitura desagokoa izatea ez da enpresak bizirauteko faktore kritikoa, kobrantza eta ordainketen zikloa erraz samar aurreikus baitaiteke, eta, beraz, maniobra-fondoak urriak edota negatiboak izanda ere, enpresak gauza izan daitezke beren jarduna erosotasunez burutzeko.

Baina une honetan egoera guztiz kontrakoa da. Ziklo ekonomikoak gero eta labur eta biziagoak dira, aurrerapen teknologikoak oso handiak, eta merkatuetan ezegonkortasuna da nagusi; horren guztiaren ondorioz, enpresen biziraupenerako bete beharreko baldintza da finantza-kaudimena, baldintza bakarra ez bada ere.

Abagune badaezpadako honetan, aldaketei aurre egiteko edo aldaketa horiei egokitzeko gaitasuna finantza-egituraren osasun-egoeraren menpean dago neurri handi batean, eta hain zuzen ere kontu horri eragin nahi dio dekretu honek.

Azterketa ugari sumatu dutenez, euskal enpresen finantza-egiturak ahulak izan ohi dira, eta baliabide iraunkorren mailak apalak; egoera horrek, bada, eragin berezia du enpresa txiki eta ertainetan (ETE), zeinek osatzen baitute gure industri ehunaren parterik handiena.

Besteak beste, aurreoinarri horietatik abiaturik, Eusko Legebiltzarrak 1996ko otsailaren 12an onetsitako Industri Politikarako Plana - 1996-1999rako Jarduketa Esparru Orokorra - izeneko agiriak oinarritzko lehentasuntzat jo zuen euskal enpresen aldaketa egiturazkoa, enpresen baliabide iraunkorren egituraren hobekuntza delarik aipaturiko aldaketarako zutabe nagusietakoa.

Segunda

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a diecinueve de junio de mil novecientos noventa y siete.

El Vicepresidente,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
AGRICULTURA Y PESCA****Nº-3417**

DECRETO 141/1997, de 17 de junio, por el que se regula el Programa de Ayudas para la adecuación de la estructura financiera a las PYMES industriales.

En una situación estable y de crecimiento sostenido de las economías, la inadecuada estructura financiera no es un factor crítico para la supervivencia de las empresas, pues su ciclo de cobros-pagos resulta relativamente predecible y, por tanto, con Fondos de maniobra mínimos, o incluso negativos, pueden realizar su actividad con comodidad.

En este momento la situación es radicalmente contraria. Ciclos económicos cada vez más cortos y más intensos, avances tecnológicos, volatilidad de los mercados, etc. configuran un panorama donde la solvencia financiera es condición necesaria para la supervivencia de las empresas, aunque no suficiente.

Ante estas incertidumbres, la capacidad de respuesta a los cambios, o la capacidad de adaptarse a ellos, viene condicionada en gran medida por la disponibilidad de una estructura financiera saneada, y es aquí donde quiere incidir fundamentalmente el presente Decreto.

La debilidad financiera de las empresas vascas, y sus bajos niveles de recursos permanentes, es una circunstancia ya detectada por numerosos análisis, y esta situación afecta especialmente a las PYMES, que conforman una gran parte de nuestro tejido industrial.

En base a estas premisas, entre otras, el Plan de Política Industrial-Marco General de Actuación 1996-99, aprobado por el Parlamento Vasco el 12 de Febrero de 1996, estableció entre sus prioridades básicas el cambio estructural de las empresas vascas, siendo uno de sus fundamentos la mejora de su estructura de recursos permanentes.